



Larrialdi  
plana

**araba**

*norabide berri  
bati ekiteko*

**ehbildu**

---



<b>0.</b>	Sarrera	4
<b>1.</b>	Faseak	4
<b>2.</b>	120 milio euroko funts berezia	5
<b>3.</b>	Funts bereziarekin finantzatuko beharreko ildoak	5
	3.1 Gizarte zerbitzuen arloko talka plana	6
	3.2 Arlo sozioekonomikoko talka plana	8
	3.3 Toki Erakundeen Finantzazioa	11
	3.4 Ez ohiko gastuetarako funtsa	11
<b>4.</b>	Bestelako diru-sarrerak	11

## 0. SARRERA

Jaiki Araba, larrialdi plan instituzional bat ahalik eta azkarren politika publikoak koronabirusak eragindako krisi soziosanitarioaren eszenatoki berriari egokitzeko.

Proposamen irekia da, BBNetan ordezkaturako gainontzeko indar politikoekin zein gure lurralde historikoaren bilbe instituzionala osatzen duten Arabako Toki Erakundeekin eta Foru Aldundiarekin eztabaidatu, hobetu eta adosteko borondatearekin sortua.

Testuinguru honetan, EH Bilduren ustez ezinbestekoa da eragile ekonomiko, sindikal eta sozialak entzutea eta aintzat hartzea, baita arabar gizarte osoa ere. Horrexegatik, badira aste batzuk Arabako eragile nagusiekin diagnosi fase bati ekin geniola.

## 1. FASEAK

1. FASEA (2020ko udaberria-uda): Gure instituzioen baliabide publikoak ahalik eta gehien optimizatzea eta, lehenik eta behin, krisi honen hasieran kolpatuen suertatu diren gizarte zein ekonomiako sektore eta kolektibo zaurgarrienen premiei aurre egitea.

2. FASEA (2020ko udazkena-negua): Aurrekontu eta fiskalitate erreformak edota tresnak abiaraztea diru-bilketaren beherakadari eta instituzio publikoen ohiko diru-sarreretan jasango duten jaitsierari aurre egiteko.

3. FASEA (2021. Urtean eta hurrengoetan): Baliabide eskuragarriak egoera ekonomikoaren bilakaerari egokitzea, errekonferazioaren bidea hartu arte, eta premia horiek atontzen jarraitzea.

## **2. 120 MILIOI EUROKO FUNTS BEREZIA.**

Gizarte eta ekonomiako sektore eta kolektibo zaugarrienen premiei aurre egiteko asmoz, EH Bilduk kalkulatu du Arabako Foru Aldundiak bere baliabideekin 120 milioi eurotik gorako funts bat sortu dezakeela, gastu horiei aurre egitea ahalbidetuko diona.

- Foru zor publikoa 50 milioitan zabaltzea.

- Diruzaintzaren soberakina gasturako erabiltzea eta gastu publikoa bera murrizten duten neurriak ezabatzea: 45 milioi.

- 2020ko aurrekontuen gastu lehentasunak eta egoera sakonki aztertzea eta berrantolatzea: 27 milioi euro 2020rako.

- 2020ko FOFELen zati bat atxikitze aukera, beti ere Toki Erakundeekin adostuz gero.

## **3. FUNTS BEREZIAREKIN FINANTZATU BEHARREKO ILDOAK**

- 30 milioi euro Toki Erakundeen finantzazioaren murrizketa orekatzeko

- 39 milioi euro Gizarte Zerbitzuen arloko talka plan baterako

- 35 milioi euro arlo sozioekonomikoko talka plan baterako

- 15 milioi euroko funtsa ezohiko gastuetarako

### 3.1 GIZARTE ZERBITZUEN ARLOKO TALKA PLANA

COVID-19aren pandemiak eragindako krisiak panorama izugarria utzi du gizarte baliabideetan, publiko zein pribatuetan. Alarma soziosanitarioak babes sozialeko gure sarearen zutarriguztiak astindu ditu; izan ere, oso zutarriguzti ahulak ziren horiek, urtetako prekarizazioaren eta pribatizazioaren ondorioz. Alarma egoera honek agerian utzi du Arabako gizarte zerbitzuen ahulezia ikaragarria.

Kontuan hartu behar dugu, gizarte zerbitzuetan dagoeneko antzemandako eskaera eta beharrez gain, alarma soziosanitario honek erantzun beharreko erronka eta premia berriak eragingo dizkigula, baldin-eta inor atzean utzi nahi ez badugu.

Hori dela-eta, larrialdiko lehen fase honetan honako erronka hauek ezartzen dizkiogu geure buruari:

- Pandemiaren balizko berpizte baterako gure gizarte zerbitzuen sistema prestatzea. Horretarako bermatu behar da behar besteko langileak ditugula eta langile horiek babes ekipamendu egokiak dituztela.

- Bat-batean sortu daitezkeen larrialdiei erantzuteko diru-laguntzen hornidura handitzea.

- Adinekoak, menpekotasuna pairatzen duten pertsonak eta adin txikikoak zaintzeko kontziliario neurriak.

Neurri zehatzak:

Arabako egoitza pribatuen I. Hitzarmena sinatzea	1.000.000€
Kontziliaziorako diru-laguntzak	8.000.000€
GLL	5.000.000€
Etxez Etxeko Zerbitzua, PEAP eta PECEF indartzea	5.000.000€
NBEen biltegia	2.000.000€
Udalentzako diru-laguntzak egoki deritzen Gizarte Zerbitzuak indartu ditzaten	2.000.000€
Muturreko gizarte esklusioa artatzeko baliabideen kokapenari buruzko azterlana eta beraiek abiarazteko modua	300.000€ (1.000.000€ crédito de compromiso)
Gizarte baliabideetako langile kopurua indartzea ikastetxeak, eguneko zentroak edota zentro okupazionalak itxita badaude edota ordutegia murrizten bazaie	5.000.000€
Udazkenari begira egoitza publikoetan solairu bana atontzea positibo emango duten adinekoentzat eta desgaitasuna pairatzen duten pertsonentzat	5.000.000€
Itxita egon diren edota artapen ordutegia murriztu zaien baliabideetako langile kopurua indartzea (menpekotasunaren balorazioa, indarkeria matxista pairatu duten emakumeentzako programak...)	5.000.000€
GOFeko Gizarte Langileen kopurua handitzea	1.000.000€

### 3.2 ARLO SOZIOEKONOMIKOKO TALKA PLANA

Arlo sozioekonomikoan premiazkoa da diru-laguntza ildoak atontzea alarma egoeraren ezarpenaren ondorioz euren jarduera geldiarazi behar izan duten autonomo eta enpresentzat edota fakturazioaren jaitsieraren ondorioz euren diru-sarreretan beherakada handia izan dutenentzat. Gainera, besteren kontura jarduten duten langile asko ERTE batean daude edota ez zaie kontratua berritu edota osasun murrizpenak direla-eta ez daukate lan merkatuan berehalaxe sartzerik.

Arlo honetan, Jaiki Araba Planak bestelako diru-laguntza planetan sartzerik ez daukaten hiru sektoretan (euskalgintza, hirugarren sektorea (GKEak) eta aisialdia) enplegua mantentzeko plan berezia proposatzen du. Halaber, lan merkatuan sartzeko zailtasun handiak dauzkaten hainbat sektoretan (gazteak, emakumeak, migratzaileak, dibertsitate funtzionaleko pertsonak eta 55 urtetik gorakoak) enplegua sustatu eta mugarik gabeko kontratazioetarako diru-laguntzak sortu nahi ditu.

Baldintza duinetako enplegua sortu eta mantentzea bezain garrantzitsua da etorkizuneko langileak prestatzea garrantzi handiko bi arlo hauetan: zaintza lanak eta enplegu berdea.

Industriaren arloan, lehen fase honetan berrikuntzarako zein ekintzaileentzako diru-laguntzak planteatzen dira, baita hurbileko merkataritza suspertzeko plan bat ere, dendariei beraiei bideratutako diru-laguntzekin eta merkataritzan zein ostalaritzan kontsumoa sustatuko duten bonoak sortuz. Beste horrenbeste planteatzen da turismoaren arloan. Aipamen berezia merezi du artisautza sektoreak, datozen hilabeteetan ohiko azoketan parte hartzerik izango ez dutelako. Kasu honetan, diru-laguntza zuzenez gain, on line salmentarako plataformak sustatzearen alde egiten da.



COVID-19ak eragindako krisi soziosanitarioak agerian utzi du lehen sektorearen garrantzia, baita horren ahuleziak ere. Horrexegatik, Jaiki Arabak trantsizio agroekologikoaren alde egingen du, eta horren baitan honako hauek hartzen ditu: proiektu berrien garapena, salmenta zuzenerako on line edota logistika plataformak, merkaturatze zirkuitu laburren garapena eta hiriguneetako biztanleentzako kontzientziazio kanpainak.

Halaber, jarraian zehazten diren premiazko neurrien multzo honetan klima aldaketaren kontrako borrokari zein energia trantsizioari lotutako inbertsioak sartzearekin batera, kulturaren aldeko apustu irmoa egiten da.

<b>ENPLEGUA</b>	<b>5.000.000</b>
Euskalgintzako Enplegua Mantentzeko Plana	500.000
Hirugarren Sektoreko Enplegua Mantentzeko Plana	1.000.000
Aisialdiari lotutako Gazte Enplegua Mantentzeko Plana	500.000
Enplegua sortzeko programa, sektore hauei bereziki zuzendua: gazteak (30 urtera arte), emakumeak, migratzaileak, dibertsitate funtzionaleko pertsonak eta 55 urtetik gorakoak	1.500.000
Mugarik gabeko kontratazioetarako diru-laguntzak	1.500.000
<b>PRESTAKUNTZA</b>	<b>2.000.000</b>
Industria 4.0ko LH eta Unibertsitate prestakuntza programak indartzea	1.000.000
Zaintza lanetarako prestakuntza eta gaitze programa	500.000
Prestakuntzarako Kuadrilletako diru-laguntzak	500.000
<b>INDUSTRIA</b>	<b>8.000.000</b>
Jaiki Araba – Berrikuntzarako diru-laguntzak	3.000.000
Araba Aurrera- Ekintzaileentzako diru-laguntzak	2.000.000
Araba Aurrera- Enpresa Txiki eta Ertaintentzako diru-laguntza plana	2.000.000
Haize-Tunela	1.000.000

<b>MERKATARITZA</b>	<b>4.000.000</b>
Hurbileko Merkataritza Suspertzeko Plana	2.000.000
Merkataritza eta Turismorako kontsumo-bonoa	1.000.000
Artisautza	
- On line merkataritza garatzeko plana	500.000
- Enplegua mantentzeko diru-laguntza zuzenak	500.000
<b>ARABA BIZIBERRITU</b>	<b>2.500.000</b>
Mendialdea, Añana eta Trebiñurako Talka Plana, oinarritzko azpiegituretako inbertsioak, komunitate garapena, etxebizitza politika eta ekonomia endogenoa bere baitan hartuko dituenak	1.000.000
Arabako Errioxarako Plan Berezia: 1.500.000	1.500.000
- Krisi Lurralde-Mahaia (nekazaritza eta turismoa)	700.000
- Arabako ardogintzarako Talka Plana	800.000
<b>TURISMO</b>	<b>2.000.000</b>
Turismoa eta Ostalaritza suspertzeko plana, arreta berezia establezimendu txiki eta ertainei eskainiz	2.000.000
<b>TRANSIZIO AGROEKOLOGIKOA</b>	<b>2.000.000</b>
Eredu agroekologiko batera igarotzeko finantzazioa ildoak (proiektu berriak, salmenta zuzenerako on line edota logistika plataformak, merkaturatze zirkuitu laburrak eta hiriguneetako biztanleentzako sentsibilizazio kanpainak)	1.500.000
Diru-laguntza zuzenak	500.000
<b>INGURUMENA</b>	<b>6.000.000</b>
Klima aldaketaren kontrako borrokari lotutako inbertsioak	2.000.000
Energia trantsizioari lotutako proiektuen sustapena	3.000.000
Hondakin Kudeaketarako programa	1.000.000
<b>KULTURA</b>	<b>3.000.000</b>
Kultur bonoak	1.000.000
Sorkuntzarako diru-laguntzak	1.000.000
Kultur industriak	1.000.000

### 3.3. TOKI ERAKUNDEEN FINANTZAZIOA

JAIKI ARABAK planteatzen du 120 milioiko funts berezitik 30 milioi euro bideratzea FOFEL finantzatzeko, PNVren Foru Gobernuak aldebakartasunez ezarri nahi duen %25eko murrizketa arintzeagatik.

Gainera, toki erakundeen finantzazioa arautzen duen foru arauaren erreforma proposamena erroldatu da diru-bilketaren jaitsiera leuntzearen; erreforma horrek funtsezko bi kontu jasotzen ditu bere baitan: batetik, salbuespen gisa datozen urteetako diru-bilketaren jaitsiera hori atzeratu edo zatikatzeko aukera egon dadila, beti ere modu adostuan eta boluntarioan; bestaldetik, borondatezko funts indibidualizatu bat sortzea, Arabako Foru Aldundiak Toki Erakundeei egiten dien ekarpenaren murrizpena inolaz ere %5etik gorakoa izan ez dadin.

### 3.4. EZOHIKO GASTUETARAKO FUNTSA

15 milioi euro gordetzen dira behar berrietarako edota plan honetan jasota egon arren finantzazio handiagoa behar dezaketen partidetarako.

## 4. BESTELAKO DIRU-SARRERAK

Aurreko neurriekin batera, Jaiki Arabak bestelako neurriak proposatzen ditu foru zein udal ogasunen diru-sarrerak handitzeko. Besteak beste, azpimarratu behar da energia garraiatzen duten enpresentzako toki tasa lurzorua, lurrazpia eta lurgaina okupatzeagatik; tasa honek toki erakundeei ahalbidetuko die kuantifikatu gabeko funts berezia edukitzea, 2020an ez ezik, baita hurrengo urteetan ere. Bestaldetik, Jaiki Arabak proposatzen du 2019ko foru zerga nagusien inposizio zati altuenetan “COVID tasa” ezartzea, horretarako urgentziazko Foru Arau berri bat onartuz.

